

VI. ERANSKINA

SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANEKO JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA TRATATZEKO ADIERAZPENA

_____, jaunak/andreak, bere izenean edo _____ren (kontratista/onuraduna) ordezkari gisa, zeinak (kontratatik/onuradunak) _____ IFZ eta _____ egoitza fiskala dituen eta XX Osagaian "_____" zehaztutako helburuak lortzeko SEEPTik datozen baliabideekin finantzatzeko laguntzen onuraduna den, adierazten du ezagutzen duela aplikatzeko den araudia, zehazki: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/41 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko apartatu hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrietarako funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, bilaketak egitea ahalbidetuko duen formatu elektronikoko batean eta datu-base bakar batean, honako datu-kategoria bateratu hauek biltzea:
 - a) funtsen azken hartzailearen izena;
 - b) kontratistaren eta azpikontratistaren izenak, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzaileraren denean kontratazio publikoaren arloko Europar Batasuneko zuzenbidearen edo zuzenbide nazionalaren arabera.
 - c) funtsen hartzailearen edo kontratistaren titular errealearen izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera;
 - d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta nola Mekanismoaren esparruan hala Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa ere adierazita».
2. 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketaren onespeneraren eta 15. artikuluko 2. apartatuan eta 23. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akordioak aplikatzeko funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozeduren auditoietzaren ondorioetarako eta auditoietzak dirauen bitartean. Batzordearen kudeaketa onesteko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 319. artikuluen arabera, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu, Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluko aipatzen dituen finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan, eta, bereziki, bereizita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Adierazitako esparru juridikoarekin bat, adierazten du onartu egiten duela datuak ematea eta tratatzea aipatutako artikuluekin berariaz lotuta dauden helburuetarako.

_____ (e)n, 20____(e)ko _____ren _____(e)an

Sinatuta: